



EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Jainkoak uztartu duena, ez beza gizakiak aska”

2024ko urriaren 6a
Urteko 27. igandea (B)

Markos 10, 2-16.

Fariseu batzuek hurbildu eta, zertan harrapatuko, gizonak bere emaztea uztea zilegi ote zuen galdetu zioten. Hark erantzun zien: -Zer agindu zizuen horretaz Moisesek?

Eta haiek: -Moisesek, *dibortzio-agiria idatzi eta emaztea uzteko* baimena eman zigun.

Jesusek esan zien: -Jainkoaren gauzetan itsu zaretelako eman zizuen lege hori Moisesek. Baina, munduaren hasieratik, *Jainkoak gizaseme eta emakume egin zituen; horregatik, gizasemeak bere aitamak utziko ditu eta emazteari elkartuko zaio, eta biak bat izango dira*. Beraz, aurrerantzean ez dira bi, bat baino. Horrela bada, Jainkoak uztartu duena, ez beza gizakiak aska.

Gero, etxean, arazo berari buruz galdegin zioten ikasleek. Jesusek esan zien: -Bere emaztea utzi eta beste bat hartzen duenak adulterio egiten du lehenengoaren aurka; eta bere senarra utzi eta beste bat hartzen duen emakumeak adulterio egiten du era berean.

Beste batean, haurrak eraman zizkioten Jesusi, uki zitzaizkien; ikasleek, berriz, haserre egiten zieten. Hori ikustean, Jesus haserretu egin zen, eta esan: “Utzi haurrei niregana etortzen, ez galarazi, horrelakoek baitute Jainkoa errege. Benetan diotsuet: Jainkoaren erreinua haur batek bezala onartzen ez duena ez da inola ere bertan sartuko”.

Eta haurtxoak magalean hartu eta bedeinkatu egiten zituen, eskuak ezarriz.

“Hori ikustean, Jesus haserretu egin zen, eta esan: “Utzi haurrei niregana etortzen, ez galarazi, horrelakoek baitute Jainkoa errege. Benetan diotsuet: Jainkoaren erreinua haur batek bezala onartzen ez duena ez da inola ere bertan sartuko.”

GIZONEZKOAREN BOTEREAREN AURKA

Jose Antonio Pagola

Fariseuek galdera bat egin diote Jesusi, probatzeko. Oraingo honetan ez da garrantzirik gabea. Galileako emakumeei asko sufriarazten dien gertaera da, eta lege-maisuen eskola desberdinen jarraitzaileen artean eztabaida biziak eragiten dituenak: «**Zilegi al du senarrak andreari dibortzioa ematea?**»

Kontua ez da gaur egun ezagutzen dugun dibortzioa, baizik gizonezkoak kontrolatu ohi zuen ezkontza barruko emakume juduak bizi ohi zuen egoera. Moisesen legearen arabera, senarrak hautsi zezakeen ezkontza-hitzarmena, andrea etxetik ateraraziz. Andreak, aldiz, orotan senarraren mendeko, ezin egin zuen halakorik.

Guztiak harritu dira Jesusen erantzunaz. Jesus ez da sartu lege-maisuen eztabaiden munduan. Jainkoaren hasierako egitasmoa bilatzera gonbidatu ditu, lege eta arau guztien gainetik dagoen hura bilatzera. Lege «matxista» hau, zehazki, gizonezkoen «**bihotz-gogorkeriagatik**» sartu da judu-herrian, haiek kontrolatzen baitituzte emakumeak eta mendean hartzen.

Gizakiaren jatorrizko misterioan sakondu nahi du Jesusek. «**Gizon eta emakume**» **kreatu ditu Jainkoak**. Elkarren pareko kreatu ditu biak. Ez du kreatu gizonezkoa andrearen gain boterea eman. *Ez du kreatu emakumea gizonezkoaren mendeko. Gizon-emakumeen artean ez da eman behar bietako inoren mendetasunik.*

Gizakiaren jatorrizko egitura honetan oinarrituz, gizonezkoen «bihotz-gogorkeriak» ezarria duen oro baino harago doan ikusmoldea agertu du Jesusek ezkontzaz. Emakumea eta gizonezkoa «**haragi bakarria izateko**» elkartuko dira, bizitza partekatu bat hasteko bataren eta bestearen buru-eskaintzaz, ezarpenik eta mendetasunik gabe.

Giza maitasunaren goreneko adierazpena da Jesusentzat ezkontza-egitasmo hau. Gizonezkoak ez du inolako eskubiderik emaztea kontrolatzeko, haren jabe izango balitz bezala. Emakumeak ezin onartu du bere burua senarraren mendeko. Jainkoak berak erakartzen ditu elkarrekin bizitzera maitasun aske eta doakoaz. Biribilki konkluditu du Jesusek: «**Jainkoa batu duena, ez dezala bereizi gizonezkoak**».

Jarrera honekin, errotik suntsitu du Jesusek patriarkatuaren oinarria, molde guztietakoa: gizonezkoak emakumearen gain kontrola, mendetasuna eta ezarpena izatearena. Ez ezkontzan soilik, baita beste edozein erakunde herritar edo erlijiosotan.

Jesusen mezua entzun beharra dugu. Ezin irekitzen ahal diegu biderik Jainkoaren erreinuari eta hartako zuzentasunari, patriarkatuaren aurka aktiboki borroka egin gabe. Noiz erreakzionatu behar dugu Elizan, indar ebanjelikoaz, gizonezkoak emakumearen kontra ari duen horrenbesteko abusu, indarkeria eta oldarraren kontra? Noiz ekin behar diogu emakumea defendatzeari gizonezkoaren «bihotz-gogorkeriaren» kontra?